

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Plantxetako emakume langilliak

ñoiz komentau izan dogu oso inportantia izan dala **emakumiak** azkenengo 150 urtietan zihar Oñatiko **fabrika eta taillerretan langille lez** euki dauen parte-hartzea. Neurri haundi batian gure herrixan jarri ziran lantegi-klasiari zor xako berezittasun hori: hasi XIX. gizaldixaren bigarren erdialdixan jasotako Garaifeko **pospolo-fabrikatik** eta harrezkeroko **txokolaterixak, pilak** edota **plantxak** egitteko enpresak, **palilogintzan** edo **guardasolgintzan** jardundakuak eta beste batzuek **andrazko asko enpliau dittue** euren produziño-lanetarako.

Gaurko argazkixan agiri diranak **Solaun y Rubio S. A.** plantxa-fabrikan ziharduein 1950 hamarkadiaren akabera aldera. Ibarra zelaixaren ertz batian, erreka onduan eguen enpresa honek gerra-denporan ekin otsan bere zereginari **Dyna** moduan. Urte batzuk beranduago, ugazaba barrixakin, plantxak eta beste gaillu elektriko batzuk egitten jarraitu eben gorago aittatu dogun izena eta markia ebaliz. **Etzan fabrika oso haundixa, ezta txikin-txikiña be**; 60-70 langille ingurukua. Gehixenak gizakumiak, **baiña emakume mordoskia be ibilli zan**, montajian batez be, eta ofizinan banaka batzuk.

Argazkixan bost **Maiztegitar** agerketan dira, ahizpak, Lekunbarri auzoko *Exibaiñekuak*. Hain zuzen be, **Jesusaren** despedidia ospaketan dagoz, **Jaxinto Lizarralde** *Bellotzarekin* ezkondu aurtxuan. Hortik jakin dogu fotografia 1959ko lehenengo hillabebetakua izango dala. Jesusaren onduan dagueen gizakumia ondo ezaguna zan Oñatin: **Antonino Ibarondo, herriko musika-bandiaren zuzendarixa**, konposatzaillia eta hainbat instrumentu joten ekixena; sasue haretan fabrikako ofizinan be lanian ebillen. Umiak, orduan enpresako kargudun zan **Periko Oleagaren** seme-alabak dira. Ezkerretik eskumara eta goittik behera honeitxek dittuzue ezagutu ahal izan dittugunak:

Goixeneko illaran: **Nati Abaunz**, San Pedroko kalejakua; **Arantxa Lazkanoiturburu**, Kale Zaharrekua; **X. X.**; **Regina Kortabarria**, Kale Zaharreko *Agapittona*; **Antonia [?]**; **Dorita de Miguel**, kuartelekua; **Juanita Altube**, *Murgialdai* baserrikua; **Jesus Mari Oleaga**, mutikua; eta **Maixabel Elorza**, Kale Zaharrekua.

Erdiko illaran: **X. X.**; **Pilar Agirre**, Etxaluzeko *Karreterona*; **Mila Maiztegi**, Lekunbarriko *Exibaiña*; **Jesusa Maiztegi**; **Antonino Ibarondo**, soiñujolia, plazakua; eta **Maritxu Maiztegi**.

Beheko illaran: **Mertxe Gonzalez**, Ourenseko Carballeda de Aviatik etorritakua; **Arantxa Dorronsororo**, San Juan kaleko *Azpeitixena*; **Axun Oleaga**, neskatillia; **Mari Karmen Lazkanoiturburu**, Kale Zaharrekua; **Felisa Maiztegi**; eta **Joxepita Maiztegi**.

J. L. Plazaolak ataratako argazkixa Maixabel Elorzaren bidez heldu xaku. Argibidiak, berriz, Maixabelek berak ez ezik, beste hainbatek be samurtuko doskue: Arantxa Dorronsorok, Maiztegitar ahizpak, Beatriz Lizarralde, Monse Lizarralde, Joseba Agirrek, Iban Barrigonek edota Iban Gonzalezek. Milla esker danoiri!